



**XXXXX-(E)KO UDALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO GALDERAREN GAINEKO IRIZPENA: EA ZILEGI DEN ZINEGOTZI BATEK EGINDAKO ESKAERA, SARREREN ETA IRTEEREN ERREGISTRO-LIBURUAREN KOPIAK ESKURATZEKO.**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** 2009ko azaroaren 24an XXXXX-(e)ko Udalak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

**BIGARRENA:** Eskaera idatzia XXXXX-(e)k aurkeztu zuen eta honakoa eskatzen zuen:

*XXXXX-(e)ko Udaleko Sarrerren eta Irteeren Liburuko zerrendaren kopia, 2009ko maiatzaren 20az geroztik. Zerrenda honakoak agertu behar dira: dokumentuaren zenbakia, zein pertsonak edo entitatek bidali duen dokumentua eta dokumentuaren azalpena, baina nik aztertu nahi izaten dudanean, udaleko langileek ematen didaten zerrenda dagoen bezala.*

*XXXXX-(e)ko Udaleko Irteeren liburuko zerrendaren kopia, 2009ko maiatzaren 20az geroztik. Zerrenda honakoak agertu behar dira: dokumentuaren zenbakia, zein pertsonak edo entitatek bidali duen dokumentua eta dokumentuaren azalpena, baina nik aztertu nahi izaten dudanean, udaleko langileek ematen didaten zerrenda dagoen bezala.*

Honi atxikita doakizue udalaren txostena (izenpetu gabe).

**HIRUGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”*



Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Kontsulta-idazkiari atxikita bidali diguten txostenak planteatzen duen bezala, benebenetan erantzun behar den galdera da ea oinarritzko bi eskubideen arteko "gatazka" ote den, hau da, politikan parte hartzeari buruzko eskubidearen (Konstituzioaren 23. artikulua) eta datu pertsonalak babesteari buruzko eskubidearen arteko gatazka ote den.

Jarraian galderari erantzuten ahaleginduko gara, eta, horretarako, ez dugu joko hainbeste eskubide bat bestea baino "garrantzitsuagotzat" jotzen duen bidetik (Valentziako Auzitegi Nagusiaren 2005eko ekainaren 1eko Epaiak erabili zuen izendapena erabilita), baizik eta bide interpretatiboago batetik, aurreko hori gainditzea eta eskubide biak bateratzea edo orekatzea ahalbideratzen duena, eskubide bien titularrei horietaz baliatzeko aukerari kalterik egin gabe.

### II

Politikan parte hartzeko eskubidea aitortzen duen Konstituzioaren 23. artikulua honakoa xedatzen du:

*"1. Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzenezuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan.*

*2. Era berean, herritarrek eskubidea dute, berdintasun-baldintzetan eta legeek ezartzen dituzten betekizunekin, funtzio eta kargu publikoetara heltzeko."*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua garatzen du eskubide hori. Hona hemen xedatzen duena:

*"Toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.*

*Aurreko lerroaldean jasotako eskubidea gauzatzeko eskubidea aurkeztu ondorengo hurrengo egutegiko bost egunetan ebatzi behar da arrazoiak emanda."*

Horretaz gain, Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Legeerregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak ere arautzen du udal dokumentazioa eskuratzeko gaia. Hona hemen 14., 15. eta 16. artikuluetan xedatzen duena:



*“14. artikulua.*

- 1. “Toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariarengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.*
- 2. Informazioa eskuratzeko eskabidea administrazio isiltasunagatik onartutzat joko da, baldin eta lehendakariak edo gobernu batzordeak ez badute eskaera ukatzen duen ebazpenik edo akordiorik ematen, eskabidea egiten den datatik hasi eta bost egun epean.*
- 3. Edozelan ere, dokumentazio argigarria ukatzen bada, arrazoitutako ebazpen edo akordio bide zegin beharko da.*

*15. artikulua.*

*Aurreko artikulua horretako 1. idatz-zatian jasotakoa hala izan arren, tokiko administrazio zerbitzuek nahitaez eman beharko dute informazioa, eta korporazioko kideak ez du baimenduta dagoenik egiaztatu behar izango, honako kasuetan:*

- a. Eskuordetzak edo kudeaketa-erantzukizunak dituzten zinegotziak arlo horietako informazioa eskuratu behar badute.*
- b. Korporazioko edozein kidek, kide den kide anitzeko organoan aztertu behar dituzten gaiei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratu nahi badu, eta beste edozein udal organok hartutako erabakiak edo akordioak eskuratu nahi baditu.*
- c. Korporazioko kideek herritar guztien eskura dagoen toki erakundeko informazioa edo dokumentazioa eskuratu nahi badute.*

*16. artikulua.*

- 1. Espediente, liburu eta dokumentuen kontsulta eta azterketa zehatzak egiteko, honako arauak bete beharko dira:*
  - a. Espedienteen edo aurrekari dokumentalen kontsulta orokorrak artxibategi orokorrean edo espedienteak edo aurrekariak dauden bulegoan bertan egin ahal izango dira, eta interesa duen korporazioko kideari lagako zaizkio edo kopia bat emango zaio, honek bere bulegoan edo korporazioko kideentzat gordetako aretoetako batean azter dezan. Zinegotziak informazioa atzitzea libre duten kasuetan kopiak eskuratu ahal izango dituzte. Horretaz gain, Gobernu Batzordeko lehendakariak berariaz baimendutako kasuetan baino ezin izango dira jaso kopiak.*
  - b. Espedienteak, liburuak eta dokumentazioa ezingo dira atera udaletxetik edo probintziako jauregitik edo dagokion bulegotik.*
  - c. Lehendakariaren akta-liburuak eta ebazpen-liburuak artxibategian edo idazkaritza orokorrean baino ezin izango dira kontsultatu.*
  - d. Bilkuretan aztertu beharreko espedienteak bakar-bakarrik ikusi ahal izango dira, deialdiaz geroztik ikusgai dauden tokian.*
- 2. Aurreko idatz-zatiko a) atalean aurreikusitakoa bezalako kasuetan informazioa emateko, eta behar bezalako administrazio-kontrola egiteko, interesdunak hartu izanaren agiria izenpetu beharko du eta gehienez ere berrogeita zortzi orduko*



*epea edo lehenago bueltatu beharko du espedientea, espedientea izapidetzeko premiak zein diren ikusirik.*

*3. Korporazioko kideek sekretu gorde beharra izango dute haien eginkizunak burutzeko jasotzen dituzten informazioekiko, bereziki, artean hartzeke dauden erabakien aurrekariak badira informazio horiek, eta ezinezkoa izan dadin aztertzeke eskuratzen duten dokumentazioaren kopiarik egitea, dokumentazioa jatorrizkoa izan nahiz kopia izan.”*

Informaziorako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea bateratzen saiatzeko egin daitekeen lehendabiziko gauza da gogora ekartzea zinegotzien informaziorako eskubidearen edukiaren gainean Auzitegi Gorenak eman duen doktrinaren osagai garrantzitsuenak izan daitezkeenak.

Epai mordoa dago gai honetaz (1988ko ekainaren 27ko, 1998ko maiatzaren 9ko, 1999ko azaroaren 5eko, 2002ko urriaren 11ko, 1989ko uztailaren 19ko, 2000ko azaroaren 17ko, 1995eko maiatzaren 5eko, 1997ko apirilaren 21eko edo martxoaren 14ko Auzitegi Gorenaren Epaiak, besteak beste). Puntu honetan aipa daiteke udalak eskaera-idazkiari atxikita bidali duen txostenean aipatzen den epaia, hau da, Auzitegi Gorenaren 2006ko martxoaren 29ko RJ\2006\2286 Epaia. Epaiak Fuenlabradako Hiribilduko alkate-lehendakariaren dekretu bat zilegi zen ala ez ebatzi zuen kasazio fasean. Alkate-lehendakariaren dekretuak zinegotzi batek aldeztu aurretik eskatutako zenbait kopia ukatzen zituen. Hona hemen epaiaren hirugarren eta laugarren gogoeta juridikoek xedatutakoa:

*“Aipatu berri dugun kasazio-arrazoi horrek planteatzen duena da ea Konstituzioaren 23. artikuluan aitortutako politikan parte hartzeko oinarritzko eskubideak, kopiak eskuratzeko baldintzarik gabeko eskubidea ematen dien zinegotzietan eta ea eskubide hori guztok bat datorren TAOLen 77. artikuluan aitortzen dien informaziorako eskubidearekin.*

*Sala honen jurisprudentziak lehenago ere aztertu du gai hau, eta halaxe dago jasota 2000ko martxoaren 14an emandako Epaian (RJ 2000, 3182) -eta epaiak beste hauek jasotzen ditu: 1998ko otsailaren 13ko RJ 1998, 2185; 1998ko apirilaren 29ko RJ 1998, 4574; 1989ko uztailaren 19ko RJ 1989, 5650; 1995eko maiatzaren 5eko RJ 1995, 3641 eta 1997ko apirilaren 21eko RJ 1997, 3006)—. Gaia aztertzeke, TAOLen 77. artikuluan xedatutakoa, Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduaren 14., 15. eta 16. artikuluan xedatutakoa eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua (6 f), 7 eta 7 idatz-zatiak) hartu ziren kontuan. Beraz, arau horiek guztiek aintzat hartuta, auziari ematen zaion erantzuna, ez da erabatekoa, ñabardurak baitaizka. Ñabardurak segidan azalduko ditugu.*

*Jurisprudentzia horrek egiten duen aldarrikapen nagusia da zinegotzientzat politika kontuetan parte hartzearen funtsa dela udalean dagoen informazioa eta dokumentazioa eskuratu ahal izatea. Baina, jurisprudentziak ez dio besterik gehitzen guztiz informatuta egoteko kontuari.*

*Aldarrikapen nagusia osatzeko, ordea, esaten da berezitu egin behar direla informazioa atzitzeko eskubidea eta kopiak eskuratzeko eskubidea; era berean, esan behar da Konstituzioaren 23.2 artikuluan informazioa atzitzeko*



eskubidea jasotzen duela (eta TAOLen 77. artikulua ere aitortzen eta arautzen du eskubide hori) baina ez duela jasotzen dokumentuen kopiak eskuratzeko eskubidea.

Kopiak egiteko eskubidea dela eta, eskubide desberdina izanik, esaten da Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduaren 16. artikulua xedatutakoa bete behar dela; artikulua horrek ez duela eskubide hori izaera orokorrekin onartzen, Erregelamenduko 15. artikuluan jasotzen diren atzipen libreko kasuetan eta gobernu batzordeko alkate-lehendakariak berriaz baimentzen duen kasuetan baizik. Era berean, esaten da atzipen librekoak diren kasu horietako bat dela herritarrentzat ere atzipen librekoak diren informazioa eta dokumentazioa ere.

Era berean, jurisprudentzia horrek ukatu egin du kopiak eskuratzeko eskubidea 30/1992 Legetik ondorioztatu daitekeenik. Hori frogatzeko, Legearen 6 f) atalean xedatutakoa aipatzen du —37 6 f) atalak dio toki korporazioko kideek, eta beste batzuek, dokumentazioa eskuratzeko arloa, berriazko xedapenen bidez arautuko dela—, eta bereziki azpimarratzen ditu 37. artikuluen 7. eta 8. idatz-zatiak. Bi idatz-zati horiek xedatutakoaren arabera, partikularrek ezin dute dokumentuen nahi adina kopia edo egiaztagiri eskuratu, eta xedatzen duenez, eskubide horretaz baliatzeko honela jokatu beharko dute: “(..) aztertu nahi dituzten agiriak banaka zehaztu behar dituzte eskaeran; hau da, ezin dute gai edo gai-multzo baterako eskubide orokorrik egin, (...)”.

LAUGARRENA:

Laburtu dugun jurisprudentziarekin segituta, eta irizpidea zertan oinarrituta dagoen ahalik eta ondoen argitzeko eta zehatzeko, ondoko xehetasunak egin behar dira:

- a) Zinegotzi karguari berez dagokion politikan parte hartzeko oinarrizko eskubidearen muina informazio eskubidea da, baina eskubide horrek ez du bere baitan jasotzen udal korporazioan dagoen dokumentazioaren kopiak eskuratzeko eskubidea.
- b) Kopiak eskuratzeko eskubidea toki araubidearen arauditik dator eta baldintza batzuk dauzka (...)
- c) Kopiak eskuratzeko eskubideaz baliatzeko baldintzak ez dira berdinak, eta erabiltzen den legearen arabera dira: Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduaren 15. artikuluko a) eta b) paragrafoek xedatutakoaren arabera baliatuz gero eskubidea, zehaztu egin beharko da zertarako nahi diren kopiak, eta c) paragrafokoak xedatutakoaren arabera baliatuz gero, 30/1992 legearen 37. artikuluko 7 eta 8 idatz-zatiek finkatu bezala, agiriak banaka zehaztu beharko dira (RCL 1992, 2512, 2775 eta RCL 1993, 246).

Jurisprudentzia-doktrina hori guzti hori aztertu eta gero, esan dezakezu ateratzen dugun ondorio garrantzitsuena dela politikan parte hartzeko oinarrizko eskubidea informazio eskubidearen bitartez asebetetzen dela, hau da, informazioa eskuratzeko. Eta kopiak eskuratzeko eskubidea, ordea, toki araubidetik eratorritako eskubidea denez, toki araubideak xedatzen duenaren mende dago.

Epaiak, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren (AJA) 15. artikuluko hiru atalak



interpretatzean, eskatzen du zehazteko ea zertarako eskatzen diren kopiak batzuetan (a eta b atalak) eta dokumentazio-banakatzeak besteetan (c atala).

Gainera, zinegotzien informaziorako eskubideak mugak ditu. Zentzu horretan jurisprudentziak dio kontua ez dela “informazioa bildu eta hedatzeko edo jakin minagatik edo esamesaka aritzeko edo bestelako gezurrezko helbururen baterako”. (Kanaria Handietako Auzitegi Nagusiaren 2003ko apirilaren 24ko Epaia)”.

### III

Bestalde, Konstituzioaren 18.4 artikulua jasotzen duen oinarrizko eskubidea (intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea hurrenez hurren) dela eta, horien gainean dagoen konstituzio-doktrina guztia birpasatu beharrik gabe, azaroaren 30eko 292/2000 KAEk xedatutakoa ekarriko dugu hona:

*“Datu babeserako eskubidearen bidez norbanakoei datu horietaz baliatzeko ahalmena bermatzen zaie. Berme horrek, alde batetik, debekatu egiten die botere publikoei datu horien iturri izatea, baldin eta horretarako nahikoa berme ez badute, eta bestetik, derrigortu egiten ditu arriskuei aurrea hartzera, gerta daitekeelako informazio hori behar ez bezala erabiltzeagatik informazioa bidegabe atzitzea edo zabaltzea. Baina norbera norbere datu pertsonalez baliatu ahal izateko boterea alferrik da, ukituak ez baldin badaki zein datu dauzkaten hirugarrenek, nork dauzkan eta zertarako.*

...

*Hori horrela izanik, datu-babeserako oinarrizko eskubidea ez da bakar-bakarrik pertsonaren datu intimoetara mugatzen, baizik eta edozein motatako datu pertsonaletara, intimoa izan ala ez, kontuan izanik, hirugarrenek horien berri izanez gero edo horiek erabiliz gero, datuen jabearen eskubideei kalte egin diezaieketela, oinarrizko eskubideak izan ala ez, bere helburua ez delako bakar-bakarrik norbanakoaren intimitatea, norbanakoen intimitatea babesteko Konstituzioaren 18.1 artikulua baitago, baizik eta datu pertsonalen babesa. Ondorioz, datu pertsonal publikoak ere harrapatzen ditu; izan ere, edonork eskuratzeko modukoak badira ere, ukituak baino ez du haiez baliatzeko ahalmena, ukituak datu babeserako duen eskubideak horrela izan dadin bermatzen duelako. Horregatik hain zuzen ere, datuak pertsonalak direlako, pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuez gain, pertsona identifikatzen duten edo identifikagarri egiten duten datu guztiak daude babestuta, hau da, pertsonaren arraza, profil ideologikoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozein profil osatzeko balio duten datuak edo egoera jakin batzuetan norbanakoentzat kaltegarriak izan daitezkeen bestelako helburuetarako erabilgarriak izan daitezkeen datuak.*

Orain arteko jurisprudentzia guztia gogora ekartzeak garrantzi handia badauka, beste hainbeste du, txosten honen ondorioetarako, behin eta berriz aipatzen ari garen eskubideek zenbaitetan izan ditzaketen mugak, eta muga horiek araututa daude.

Beraz, ez dago gaizki gogora ekartzea Datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzko eta datu horien zirkulazio libreari buruzko



1995eko urriaren 24ko Europako Parlamentuaren 95/46/CE Zuzentarauak eskubide horri zenbait muga jartzeko aukera aurreikusten duela. Une honetan 13.1 artikuluan aurreikusitakoa hartuko dugu kontuan. Hona:

*Estatu kideek lege aldetik hartu beharreko neurri guztiak hartu ahal izango dituzte, 6. artikuluko 1. paragrafoan, 10. artikuluan, 11. artikuluko 1. paragrafoan eta 12. eta 21. artikuluetan jasotako betekizun eta eskubideen irispenera mugatzeko, baldin eta mugapen hori ezartzea beharrezkoa bada honako hauek babesteko:*

*6.- kontrolatzeko, ikuskatzeko edo arautzeko funtzioak, baldin eta, aldi behingoa izanda ere, agintaritzaren publikoen zereginekin zerikusia bada, c), d) eta e) idatz-zatietan jasotako egoerei dagokienez.”*

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara jotzen badugu berriro, han ere muga horiek definitzen aritu dira. Eta, honako hau ezarri du behin eta berriz:

*Honakoa ere Epaitegi honen doktrina da: “intimitaterako eskubidea ez da erabatekoa, oinarrizko gainontzeko eskubideak ere ez diren bezala, eta Konstituzioaren arabera garrantzi handia duten zenbait interes haien gainetik jar daiteke, eskubidea murriztea ezinbestekoa bada lortu nahi den helbururako, proportzionala bada, eta eskubidearen funtsezko edukia ez badu urratzen» (Konstituzio Epaitegiaren 57/1994 Epaia 6. arrazoibidea eta 143/1994 Epaia 6. arrazoibidea eta gainontzekoak).”*

Lehen aipatu dugun 292/2000 KAEk ere honakoa xedatzen du:

*“Norbere datu pertsonalak bildu eta tratatu ditzaten adostasuna adierazteko eskubideak (DBLOren 6. artikulua) ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimena ematen denik; izan ere, norbere datuak hirugarrenei lagatzeko baimena datu babeserako oinarrizko eskubidearen edukiaren barruko ahalmen berezietako bat baita: Beraz, datu bilketa egitean zegoen helburua ez den beste helburu bat duen tratamendu baterako laga nahi badira, nahiz eta helburuak bateragarriak izan (DBLOren 4.2 artikulua), horrek esan nahi du beste batek izango dituela datuak eta beste erabilera bat egingo dela, eta horretarako, interesdunaren adostasuna behar da. Adostasunaren ahalmenak duen muga bakarra dira konstituzioaren arabera funtsezkoak diren eskubideak eta ondasunak. Beraz, arrazoitua eta proportzionala izan behar du eta lege ezarria, datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideak ez duelako bestelako mugarik onartzen”.*

#### IV

Horrela bada, oinarrizko eskubide bi horiek zedarritu ondoren, eta ikusirik, DBLOren 11.2 a) artikulua arabera, lagapena lege batek baimentzen badu ez dela behar interesdunaren adostasunik, ondoriozta daiteke Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 77. artikulua dela udaletako zinegotzietatik datuak lagatzeko baimena ematen duen lege-araua —txostenak ondo egiten du lege hori aipatzen—. Beraz, oro har horrela egindako datu-komunikazioak ez du 18.4 artikuluan jasotako oinarrizko eskubidea urratzen laga behar diren datuen titularren kasuan.



Baina, planteamendu orokor hori egokitu egin behar da kasu bakoitzaren egoerara. Kontsulta-idazkiari atxikitako txostenean jasotakoak ikusita, honako hau azpimarratu behar da: “XXXXX-(e)ko Udaleko Sarreren eta Irteeren Liburuko zerrendaren kopia, 2009ko maiatzaren 20az geroztik. Zerrenda honakoak agertu behar dira: dokumentuaren zenbakia, zein pertsonak edo entitatek bidali duen dokumentua eta dokumentuaren azalpena, baina nik aztertu nahi izaten dudanean, udaleko langileek ematen didaten zerrenda dagoen bezala”. Irteeren liburuaren zerrendaren kopiari buruzko eskabideak ere gauza bera dio.

Baldintza horiek kontuan hartuta eta goiko interpretazio hori gainditzen duen erantzun bat lortu nahian, esan behar da erantzunak zinegotzien parte-hartze politikorako eskubidea ahalbideratzeaz gain, ez diola funtsezko kalterik egin behar herritarrek datu pertsonalen babeserako duten oinarrizko eskubideari.

Horrek eskatzen du, gure ustez, mahai gainera ekartzea irizpide orokor hau: datuak garrantzitsuak izan behar direla korporazioko kideei egiten zaien datu-komunikazioaren helburuekiko. DBLOren 4. artikuluko 1. eta 2. paragrafoan dago jasota printzipio hori, eta horren arabera:

*“1. Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.*

*2. Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren helburuetarako.*

Datu pertsonalen babeserako lege-araubide guztiek oinarrian duten irizpide hori kontuan hartuta, AJAn dagoen dokumentuen erregistroaren erregulazioari heldu behar zaio.

Hori horrela, Antolakuntza eta Jarduerari buruzko Araudiaren (AJA) 151. artikulua ezartzen du Erregistro Nagusiaren helburua dela “sartzen diren dokumentuen sarrera eta behin betiko bidali direnen irteera argi eta garbi jasotzea ”

Araudi horretako 152. artikulua asmoa da bermatzea “toki erakundeak jasotzen dituen edo bidaltzen dituen dokumentu guztien sarrera eta irteera jasotzen dela”.

Azken finean, ezin da alde batera utzi erregulazio hori jasota dagoela “Administrazio Prozedurari” buruzko kapituluaren eta 160. artikulua honakoa agintzen diola Erregistroaren arduradunari: “... bulegoetan banatu behar dituela eta han Erregistro lagungarrian jasoko dituztela eta aurrekariekin batuko dituztela, halakorik egonez gero, edo bestela espedientea hasi edo ireki beharko dela, eta izapidetu”.

Horrekin esan nahi dena da Erregistroa eta udalean izapidetzen diren administrazio prozedurak oso lotuta daudela eta, ondorioz, erregistroaren xederik garrantzitsuenetako bat dela lagungarria izatea prozedura horiek behar bezala izapidetu daitezen.

Zalantzarik gabe, Erregistroaren beste helburu bat da udal jardueraren kontrola ahalbideratzea.

Ondorioz, txosten honetan jasotzen den jardunbidea datu pertsonalen babesari buruzko araudira egokitzeko, ezinbestekoa izango zen informazioa eskatu duten



zinegotziei komunikatzen zaizkien datuak egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea lortu nahi duten helbururako, hau da, kontrol eta fiskalizazio eginkizunak gauzatzeko edo zinegotziek legez esleituta dauzkaten bestelakoetarako.

Kontrara, komunikazioak ez du datu babesaren arloko araudia beteko, baldin eta datu pertsonalak korporazioko kideei komunikatzen bazaizkie eta datuak ez badira garrantzizkoak eta neurrikoak zinegotziek esleituta dauzkaten eginkizunetarako.

Honako hau da Auzitegi Gorenak gai honen inguruan egindako jurisprudentziatik atera daitekeen konponbidea.

*“Gaiaren muinean sartuz, parte hartzaileetako batek ere ez du zalantzan jartzen udaletako kide diren aldetik, zinegotziek dituzten erabakitze, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko eskumenak, ez eta eskumen horietaz baliatu ahal izateko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 77. artikulua eta Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduari 14. artikulua aitortzen dieten eskubidea ere; izan ere, eskubide horren arabera, Korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku dauden aurrekariak, datuak edo argibideak eskuratzeko eskubidea. Bestalde, hori guzti hori Konstituzioaren 23.1 artikulua barruan dago. Horregatik guztiagatik, ebatzi beharreko gaiaren alderik larriena da Alkatetzak errekurso honen jatorrian zegoen eskaera ukatzeko erabilitako idazkietan eman dituen arrazoiak: Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean ezarritako irizpideak aipatzen dituelako eta irizpide horien artean sekretu estatistikoa arautzen duten 4.2 eta 13. artikulua daudelako eta sekretu horren xedea izatez da intimitaterako oinarritzeko eskubidea babestea, Erroldan jasotako datu pertsonalak direla eta.*

*Azken finean, ikusten dugu auziaren giltzarria dela gai izatea bi eskubide hauen arteko mugak finkatzeko: batetik, Konstituzioaren 23.1 artikulua zinegotziei aitortzen dien eskubidea gai publikoetan parte hartzeko, eta bestetik, Konstituzioaren 18.1 artikulua herritar guztiei aitortzen dien intimitaterako eskubidea.*

*Toki Araubideak ez digu gai honi buruzko erantzun zehatzik ematen, nahiz eta Errolda dokumentu publikoa dela aldarrikatu, dokumentu publikoa izan arren Erroldako sarbidea ez delako edonolako eta are gutxiago Errolda osatzeko aurrekarietarako sarbidea.*

*Erantzunik ezean, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko Legeak gai honi buruz jasotzen dituen irizpideetara jo dezakegu inspirazio bila. Hortaz, Lege horretan sekretu estatistikoa bermatzea da helburua, eta sekretuaren xedea da zerbitzu estatistikoetako informatzaileengandik zuzenean jasotako datu pertsonalak helburu estatistikoak ez diren bestelako helburuetarako ez daitezela erabili (14.3 artikulua). Horretarako xedatzen du estatistika arloko langile guztiek dutela estatistika arloko sekretu gorde beharra betetzeko obligazioa (17. artikulua). Bestalde, 4.4 artikulua estatistika zerbitzuei agintzen die, espezialitatearen irizpidea kontuan hartuta, estatistikak egiteko jasotako datu pertsonalak datu horiek eskuratzeko orduan ezarrita zeuden helburuetarako baino ez erabiltzea.*

*Estatistika eremuko langileen izaera eta udalerrri mailan zinegotziek duten herritarren ordezkari izaera ezin diren arren parekatu, egia da zinegotziek*



*legearen babesa dutela, edo alkatearen egintzak kontrolatuz edo fiskalizatuz edo egintzok onartuz, Udal Errolda egiten parte hartzeko. Eta legearen babesa dute, batez ere, Errolda osatzen duten udalerriko egoiliarak eta pasadizokoak benetako egoera islatzen duten ala ez ziurtatzeko. Beraz, zentzu horretan, errekurso egileek Alkateari egin zioten Errolda aztertzeako eskaera guztiz bat dator zinegotzien ordezkari izaerarekin, haien asmoa zelako ziurtatzea ea han jasotako egoera eta benetakoa bat zetozen. Nahiz eta, horrek ez duen esan nahi behin haien eginkizuna burutu ondoren, aztertu diren datuen titularren intimitaterako eskubidea kaltetu dezaketen datu pertsonalen gaineko sekretu gorde beharra betetzetik salbuetsita daudenik.”*

Aipamena luzea izan bada ere, merezi du hona ekartzea, kontsultan planteatzen diren gaiak eta han landutakoak antzekoak direlako eta orduko auzia ebazteko erabili ziren elementuak gorago ere aipatu direlako.

Beraz, zinegotziek dituzten “erabakitzeko, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko ahalmenetatik” abiatuta, “parte hartze politikorako eskubidearen eta intimitaterako eskubidearen artean dauden mugak ezartzeko”, datuak “zertarako erabiliko diren” hartzen da aintzat. Ondorioz, horrek esan nahi du zinegotziek aurkeztutako errekurtoa onartu egin behar dela eta zinegotzi errekurso-egileei aitortu egin behar zaiela eskatu duten informazioa jasotzeko eskubidea.

Eskaerako helbururako datu garrantzitsuak zeintzuk diren behar bezala balioestea lortuz gero, horrek berak emango zuen bidea, Bulego honen ustez, halako oreka moduko bat lortzeko zinegotziek politikan parte hartzeko duten eskubidea behar bezala gauzatu dadin eta datu pertsonalen babeserako pertsonen eskubidea ere funtsean babestuta egon dadin.

Beste alde batetik, erraz ondoriozta daitekeenez, Bulego honek ezin du alde zuzenetik zehaztu zeintzuk kasutan izango den nahitaezkoa zinegotzietatik datuak komunikatzea, eta lan hori erakunde bakoitzak egin beharko du. Aurreko guztia bere horretan mantenduz, esan daiteke zentzuzkoa eta arrazoizkoa dela baieztatzea ez dirudiela nahitaezkoa denik dokumentuen sarrera eta irteera erregistro liburuak inskripzio guzti-guztiak eta oso-osorik ematea bere horretan. Izan ere, horrelako komunikazio indiskriminatuak eginez gero, gehiegikeriaz jokatzeko delako esan beharko zen, eta beraz, datu pertsonalen babesaren arloko araudiaren kontra ari direla, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako arau-hausteen erregimenaren menpe geratuz. Gainera, lehen ere aipatu dugu 2006ko martxoaren 29ko Auzitegi Gorenaren Epaia, eta epai horrek bereizi egiten dituela informazioa eskuratzeko eskubidea eta kopiak eskuratzeko eskubidea, eta kasu horretan AJAren 15. eta 16. artikulua xedatutakoa bete behar dela.

Zentzu horretan, udalak helarazitako txostenean proposatzen den konponbidea egokia ematen du. Hona hemen dioena: “bi eskubide horiek bata bestearekin uztartzeko interpretaziotik ateratzen dugun ondorioa da fitxategia atzitzeko era proportzionala dela zinegotziak udal bulegoetan egiten duen kontsulta pertsonal eta zuzena”. Baina, horretaz gain, DBLOK zenbait datu-motari buruz arautzen duena ere hartu behar da kontuan, bate zere, 7.2 artikuluan aipatzen diren datuak badira. Hona hemen dioena: “Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinesmenaren berri ematen duten datu pertsonalak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik



trata daitezke". Beraz, gure ustez, bi eskubideekin errespetu osoz jokatzeko duen irtenbiderik egokiena da zinegotziari lagatzea berak esandako datetan sarrera eta irteera liburuan jasotako idazpenak ikusten, BDLOren 7.2 artikulua aipatzen dituen bereziki babestutako datuak dauzkaten idazpenak izan ezik. Bereziki babestutako datuak badira, ahalegina egin beharko da zinegotziek emaitza bera lor dezaten, baina inor bere izenetik identifikatu beharrik gabe. Horretarako, DBLOren 11.6 artikulua xedatutako prozedura erabili beharko da: "disoziazio prozedura", hau da, datu pertsonalak tratatzean, lortu beharko da datu horiek ez lotzea pertsona identifikatu edo identifikagarri batekin.

Edozelan ere, eta bukatzeko ohar gisa, gogorarazi behar dugu zinegotziek sekretua gorde behar diren menpe daudela.

## ONDORIOA

- 1.- Data jakin batez geroztik sarreren eta irteeren liburuaren idazpenen zerrenden kopia ematea ez da datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren araberakoa.
- 2.- Zinegotzietan datu pertsonalak komunikatu ahal zaizkie, haien kontrol eta fiskalizazio eginkizunak nahiz legez dituzten bestelakoak gauzatzeko eskubideaz baliatu daitezke, hala xedatzen baitute Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen 77. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua.
- 3.- Zinegotzietan bakar-bakarrik komunikatu ahal izango zaizkie, esleituta dituzten helburu jakinetarako egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak diren datu pertsonalak.
- 4.- Datu horiek zeintzuk diren zehaztea eta eskaeraren betekizunak betetzen diren ala ez erabakitzea Udaleko dena delako organoaren zeregina da eta ez beste inorena.
- 5.- Datuen komunikazioa egiten bada, komunikazioa egiteko, ezinbestean hartu beharko dira kontuan udalak segurtasunaren arloan ezarrita dauzkan protokoloak (DBLOren 9. eta 20. artikulua, Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriak ezartzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuarekin bat).
- 6.- Edozelan ere, komunikatzen diren datu pertsonalen lagapen-hartzaileak edo lagapen-hartzaileak DBLOren 10. artikuluan xedatutako sekretu gorde beharra bete beharko dute.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko abenduaren 28an



**Iñaki Vicuña de Nicolás**  
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria